

Prentsa-oharra

Fagor Automation-ek eta IK4-TEKNIKERek kalibratio nanometrikoko saiakuntza-banku berritzailea aurkeztu dute

- ▶▶ *Proiektua nazioartean izango da adierazgarria, muturreko zehaztasuna eskatzen baitu, eta, zehaztasun horri esker, bere produktuen jokaera ezagutu eta hobetu ahalgo baititu euskal kooperatibak*
- ▶▶ *Gipuzkoako Foru Aldundiaren elkarlanari eta laguntza ekonomikoari esker egin ahal izan da ekimena (azken bi urteotan, I+Gko 120 proiekturi baino gehiagori lagundu die)*
- ▶▶ *Ikerketa-erakundearen instalazioetara egindako bisita baten esparruan inauguratu da, hiru aldeak egon baitira aurrean*

(Eibar, 2017ko abenduaren 1a).- IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak eta Fagor Automation-Aotek enpresak, makineria automatizatzeko eta kontrolatzeko sistemak fabrikatzen aditua hori, proiektu berri bat aurkeztu dute gaur goizean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera. Neurketa eta kalibratio nanometrikoko sistemetan puntako teknologiak garatzearen aldeko baterako apustua indartu du proiektu horrek.

Zehazki, ultra-zehaztasuneko bankada lineala garatu dute enpresak eta zentro teknologikoak, eta, horrekin, kokaleku lineala duten kodetzailen jokaera probatu eta artearen estadiora eramanez ahal izango du euskal kooperatibak.

Horrela, garapen horri esker, hainbat makina industrialen funtzionamendua optimizaziorantz eramanez ahal izango dela espero da (mekanizazio-zentroena eta goi-mailako errendimendua duten ekoizpen-tornuena, adibidez).

Zentro teknologikoak Eibarren dituzten instalazioetara egin den bisita batean esparruan egin da aurkezpena. Besteren artean, hauek egon dira: Ainhoa Aizpuru Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oregako foru-diputatua, José Pérez Berdud Fagor Automation-Aotek enpresako zuzendari nagusia eta Luis G. Uriarte IK4-TEKNIKEReko zuzendariorde nagusia.

Bisitaren amaieran, Ainhoa Aizpuru diputatuak adierazi du aurkeztu den proiektua "goi-mailako aurrerapen teknologikoa" izateaz gain, zeinak Fagor Automation-eko produktuei "eskakizun izugarria dagoen merkatuetan lehiakortasunean eta bikaintasunean irabaztea" ahalbidetuko dien, enpresaren eta zentro teknologikoaren arteko lankidetzaren "adibide argia" dela.

Aizpururen hitzetan, "gure enpresetan ezagutza aurreratua sortzea edota gure enpresetara ezagutza aurreratua transferitzea elementu giltzarria da industrian lehiakortasunari eusteko. Diputatuak xedetzat jarri du Gipuzkoa I+Gren arloan puntako eskualde gisa kokatzea Europako mailan, eta "ildo horretan lagundu behar diogu gure enpresen eta gure zentro teknologikoen arteko elkarlanari, eta elkarlan hori indartu".

Zehaztu duenez, Foru Aldundiak I+Gko 124 proiekturi lagundu die azken bi urteetan (55 proiekturi 2016an eta 69ri 2017an), Ekonomia Berpizteko Planaren esparruan, guztira 8.841.620 euro esleituz, Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Sareari laguntzeko programaren bidez. I+Gko 66 zentrok, fakultatek eta unibertsitate-erakundek hartu dute parte batez ere fabrikazio aurreratuaren, energiaren eta biozientzien/osasunaren arloetan zentratuta egon diren proiektu horietan.

Nazioarteko garrantzia duen sistema ultra-zehatza

Ekitaldian, proiektuaren emaitzak aurkeztu dizkiote zentro teknologikoak eta Fagor Automation-Aotek enpresak foru-arduradunei. Proben bankada oso berritzailea garatu dute proiektuan, eta nazioartean ere oihartzuna edukiko du, ultra-zehaztasuneko eskakizunak baitauzka. Gipuzkoako Foru Aldundiaren bultzadari eta laguntza ekonomikoari esker garatu ahal izan dute proiektua.

IK4-TEKNIKERek, zehaztasuneko ingeniarietan eta metrologian aditua den heinean, saiakuntza-banku hori diseinatu eta fabrikatu du. Horri esker, bilketa-sistema lerrokatuak lerrokatu gabeko baldintzetan kalibra daitezke.

Fagorreko bilketa linealeko produktu-sorta guztiarekin lan egin ahal izateko diseinatu da ultra-zehaztasuneko bankada lerrokatua. Bankadak eskaintzen duen kalibratio-luzera 3.200 mm-etara iristen da. Honako hau da bere alderdi bereziena: Abbe-ren hutseko lekualdaketa-nerketa interferometrikoa (hutsegiterik gabekoa) egin daiteke. Ezaugarri horiek inoiz ez bezalako nerketa-zehaztasuna ematen diote bankadari, 10 nm/m-tik beherakoa.

Euskal kooperatibaren eskarmentuaren eta know-how delakoaren ondorioz, mota horretako kodetzaile linealak oso-osorik ekoizteko gai den lehenengo enpresa espainiarra (eta bakarra) da Fagor Automation-Aotek; izan ere, kodetzailearen ekoizpenean sartzen diren lau arloetako (mekanikako, optikako, elektronikako eta softwareko) teknologiak dauzka.

Proiektu berri horrekin, posizioko kodetzaileen funtzionamendu- eta diseinu-parametroak ikertu ahalko ditu kooperatibak, zehaztasun handiagoko modelo berrien garapenean sakontze aldera.

Euskal ikerketa-zentroak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Fagor Automation-Aotek enpresarekin daukan lankidetzaren erakusten du proiektuak, zeina kooperatibak fabrikatzen dituen materialen zehaztasuna hobetzen duten elementuak garatzeko xedea duen.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak 35 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniarietan, produktu-ingeniarietan eta IKTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

Fagor Automation-Aotek enpresari buruz

Fagor Automation enpresak eskarmentu handia dauka makineria automatizatzeko eta kontrolatzeko produktuen garapen eta fabrikazioan. Zenbaki-kontrolerako sistemaz gain, encoders lineal eta angeluarrak fabrikatzen ditu kalitate eta fidagarritasun handiko teknologia optikoarekin. Softwarea garatzeko gaitasunak eta irtenbide pertsonalizatuak eskaintzeko sistema produktiboaren malgutasunak egiten dute berezi. 50 herrialdetan baino gehiagotan dago banatuta bere sare komertzial eta teknikoan, ordezkaritza propioen eta banatzaileen bidez.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Javier Urtasun

urtasun@guk.es | Tel. 637 273 728

////////////////////////////////////